



(2017ko ziurtagiri banaketaren ekitaldia. Argazkia/ Foto: Gari Jaso / Acto entrega certificados de 2017)

Ziurtagiri banatze ekitaldia Bai Euskarari 2017

Acto de entrega de certificados Bai Euskarari 2017

Noiz: martxoaren **16**an, ostiralean.

Día: **16** de marzo, viernes.

Ordua: **20:15**ean.

Hora: **20:15** h.

Non: Barañaingo Udaletxean

Lugar: Ayuntamiento Barañáin



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

Barañaingo 39 enpresa eta saltokiek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Bai Euskarari Elkarateak hamaseigarren urtez banatu ditu Ziurtagiriak Barañaingo 39 saltokiek, enpresek eta era guztietako entitateek euskararen alde emandako pausoen aitortza gisa.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa-ekitaldia ospatu dute Barañainen, 39 enpresa, saltoki eta entitateen euskara maila aitortzeko. Barañaingo Udaletik, Oihane Indakoetxeak, alkateak eta, Bai Euskarari Elkartetik, Rober Gutiérrez-ek, zuzendariak, eman zituzten bereizgarriak eta nabarmendu zuten entitateen lan eredugarria eta horien borondate eta konpromisoari esker emandako urratsak.

Geroz eta gehiago dira euskararen balioaz ohartarazten ari diren entitate, saltoki eta enpresak, bizitzan eta lan esparruan. Horren adierazle da aurtengo zifra: 39 ziurtagiridun, hain zuzen ere. Ekitaldiko gonbidatuak, protagonistak izan zirenak, ilusioz jaso zuten errekonozimendua eta argi adierazi zuten Bai Euskarari Elkaratearen laguntzarekin euskararen bidea egiten jarraituko zutela.

Rober Gutiérrez-ek esker hitzak eskaini zizkion Barañaingo Udalari, euskara zerbitzuari eta IKari, euren eskuzabaltasuna nabarmenduz. Nola ez, eguneko protagonistak, ziurtagiridunak, zoriondu zituen eta “subjektu aktibo” izatearen garrantzia azpimarratu zuen: “Sektore guztietako enpresak eta era guztietako entitateak, sindikatuak, euskararen sustapenean ari garen erakundeak, administrazioa... denon inplikazioa behar da euskararen erabilera areagotzeko, bere presentzia alor sozioekonomikoko espazioetan handitzeko, eta ardurak ere partekatu behar dira”.

Lau entitatek ziurtagiriaren maila gorena jaso zuten “Zerbitua eta Lana Euskaraz” maila, alegia; horrek bermatzen du entitate horiek euskara dutela lan-hizkuntza eta, era berean, euskarazko zerbitzuak eskaintzen dituztela; bestetik, bederatzi entitatek “Zerbitzua Euskaraz” maila eskuratu zuten eta, azkenik, 26 “Euskararen Bidean” maila. Lortutako emaitzarekin harro daudela erakutsi zuten guztiek.

Gogotsu itxi zuten ekitaldia eta Bai Euskarari Elkarateak mezu zuzen bat helarazi zion komunitateari: “Bai Euskarari, ziurtagiri bat baino gehiago da”. Bai Euskarari Elkarateak ziurtagiriarekin euskararen aldeko lana balioan jartzeaz gain, komunitatea sendotzeko lanean dihardu eta horren eskura jartzeko proiektuak eta baliabideak etengabe eguneratzen ditu.

39 empresas y comercios de Barañain reciben el certificado Bai Euskarari

Bai Euskarari Elkaratea certifica a 39 comercios, empresas y entidades de Barañain, por la labor realizada hacia el impulso del euskara

Bai Euskarari Elkaratea ha celebrado el evento de entrega de certificados en Barañain, con el objetivo de reconocer el nivel de euskara de 39 empresas, entidades y comercios. Desde el ayuntamiento de Barañain, la alcaldesa Oihane Indakoetxea y, de parte de Bai Euskarari Elkaratea, su director, Rober Gutiérrez, han otorgado los distintivos y han subrayado el trabajo ejemplar y compromiso de los y las protagonistas del evento.

Cada vez son más los y las que son conscientes del valor lingüístico, tanto en la vida, como también en el ámbito laboral. Fruto de ello son las 39 certificaciones que demuestran un nivel de euskara específico. Los y las invitados/as han recibido con orgullo e ilusión el reconocimiento y se han mostrado ilusionados por seguir construyendo el camino hacia el euskara con la ayuda de Bai Euskarari Elkaratea.

Rober Gutiérrez ha querido dedicar unas palabras de agradecimiento al Ayuntamiento de Barañain y servicio de euskara, destacando su generosidad; y, cómo no, ha felicitado a los protagonistas de la noche, subrayando la importancia de actuar como “sujetos activos”: Empresas y entidades, sindicatos, organizaciones, administración... todos debemos implicarnos y repartir responsabilidades para fomentar el uso del euskara, para impulsarlo en el ámbito socioeconómico.

Cuatro entidades recibieron el nivel “Zerbitzua eta Lana Euskaraz”; nueve entidades el nivel “Zerbitzua euskaraz”; y, por último, 26 el nivel “Euskararen Bidean”. En todos los casos, se han mostrado orgullosos/as y contentos/as con el resultado.

El evento los dejó con buen sabor de boca desde Bai Euskarari Elkaratea quisieron finalizar con un mensaje claro para la comunidad: “Bai Euskarari es mucho más que un certificado”. Destacaron, así, que además de reconocer el nivel lingüístico mediante el certificado, trabaja continuamente para reforzar la comunidad y ayudarla a avanzar con una gran variedad de recursos y proyectos actualizados constantemente.

2017 BARAÑAIN

Ziurtagiridunen zerrenda / Listado de entidades con certificado

1	Bidean	Andromeda Belardenda / Herbolario Andromeda
2	Bidean	Barañain Auditorioa Fundazioa / Fundación Auditorio Barañáin
3	Bidean	Barañaingo Euskal Kantak
4	Bidean	Barañaingo Geroa Bai
5	Bidean	Barañaingo Gizarte Eskola / Escuela Social de Barañáin
6	Bidean	Centro Veterinario ABODI
7	Bidean	Coral Barañain Abesbatza (BERRIA)
8	Bidean	Cubillas Botika
9	Bidean	Cubillas-Barricart Botika - Beatriz
10	Bidean	Gogorza Anaiak harategia / Carnicería Gogorza Hermanos
11	Bidean	Hegoalde Taberna
12	Bidean	Iratxo Taberna
13	Bidean	Izquierda/Ezkerra
14	Bidean	Kaioa Taberna
15	Bidean	Karrape taberna Los Porches
16	Bidean	Kukuma Gozo-denda / Tienda de chucherías Kukuma
17	Bidean	Lur Gorri Taberna Jatetxea
18	Bidean	Merlet S.L.
19	Bidean	Muruzabal Bizikletak / Bicicletas Muruzabal
20	Bidean	Participando en Barañáin/Barañainen parte hartzen
21	Bidean	Sada Hortz Klinika / Clínica dental Sada
22	Bidean	Studio Liburudenda/Librería
23	Bidean	Sugandilla (BEEP informatika)
24	Bidean	Tantatic Diseinu eta Garapena / Diseño y Desarrollo
25	Bidean	Tecniauto Auto Tailerra / Taller de coches Tecniauto
26	Bidean	Txaranga Txomin
27	1 Zerbitzua euskaraz	Akelamendi Taberna
28	2 Zerbitzua euskaraz	Alaitz Guraso Elkartea-Apyma
29	3 Zerbitzua euskaraz	Barabatu Barañaingo Batukada (BERRIA)
30	4 Zerbitzua euskaraz	Gazte Asanblada (BERRIA)
31	5 Zerbitzua euskaraz	Barañaingo Jai Batzordea
32	6 Zerbitzua euskaraz	Barañaingo Trikitilari Eskola
33	7 Zerbitzua euskaraz	EH Bildu Barañain
34	8 Zerbitzua euskaraz	Mugarri Guraso Elkartea
35	9 Zerbitzua euskaraz	Plazaberri Elkartea
36	1 Zerbitzua eta lana euskaraz	Hagin Erakunde Feminista (Mailaz igo)
37	2 Zerbitzua eta lana euskaraz	Haizea Kultura Elkartea
38	3 Zerbitzua eta lana euskaraz	Harizti Barañaingo Dantza Taldea
39	4 Zerbitzua eta lana euskaraz	Sahats Fundazioa

OIHANE INDAKOETXEA BARBERIA
Barañaingo alkatea / Alcaldesa de Barañain

“Eider eta Enma, Rober Gutierrez Bai Euskarari Elkarteko Zuzendari jauna, Sahats Fundazioko kideok, zinegotzi jaun andreok, bizilagun eta gonbidatuok, KAIXO eta ongi etorriak beste behin ere Barañaingo Udaletxeko areto honetara.

Gaur 39 entitatek (elkarte, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko entitateak orohar), 39k jasoko duzue BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA, zerbitzu edota produktuetan euskara sustatzeko lanaren aitoren gisa. Eta egiten duzuen lan horrengatik goraiatu eta zoriondu nahi zaituztegu.

16 urte pasa dira Barañaingo Udalak Bai Euskarari elkartearekin lanean hasi zenetik eta 12 ziurtagiriak banatzen hasi zenetik. Orduetik, geroz eta gehiago dira Nafarroako bazter euskaldunak. Baita Barañaingoak ere. Elkarbizitzan, eguneroko bizitzan zuen ekarpena egiten diozue herri honi. Horrengatik esparru hauetan euskarak bere presentzia izan behar du, herria aberatsagoa eta nortasun handiagokoa izan dadin ahalbideratzen baita horrela. Zuek ordezkatzeko duzuen urte hauetako lan eredugarri eta borondatezko konpromisoari esker 11 urrats ematen ari gara euskararen normalizazioaren bidean.

En el año 2002 se puso en marcha en Barañain el Acuerdo Bai Euskarari, y, año tras año, hemos ido recogiendo los frutos de este trabajo, que se desarrolla gracias a la colaboración de las entidades sociales del municipio y el Ayuntamiento. 16 años sí, pero es el trabajo del día a día el que da sus frutos. Creemos firmemente que hay que seguir trabajando por garantizar el futuro del euskara y para ello es imprescindible que desde todos los sectores, el de servicios en su conjunto, entidades sociales, ayuntamiento, organismos autónomos, etcétera, hagamos nuestro el compromiso de trabajar día a día por la socialización, fomento, cuidado, respeto y sobre todo en el uso del euskara.

Euskara gaitasunaren arabera, 3 mailatan eskuratzen da ziurtagiria:

- 4 entitatek ziurtagiriaren maila gorena jasoko duzue, “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” eskaintzen bait duzue
- 9 entitatek “Zerbitzua Euskaraz” eskuratuko duzue.
- 26 entitatek “Euskararen Bidean” jasoko duzue.

Gaur hemen elkartu garen ... zinegotziok Barañaingo Udala ordezkatzeko dugu ekitaldi honetan. 13.500€ bideratzen ditu Udalak ekimen hau aurrera ateratzera. Beste 2 udal egitasmo aipatu nahi ditut gainera: euskara ikasteko 30.000€ko diru laguntza deialdia eta Euskaraldia proiektua, 11 egunez euskaraz solasean eta jolasean aritzeko konpromisoa bultzatzeko. Urtez urte, egunez egun, eta beti aurrera begira, denona den hizkuntzak merezi duelako, gure konpromisoa ere argia da.

Creemos firmemente que hay que seguir trabajando por garantizar el futuro del Euskara en nuestra localidad y en todo el territorio. Por ello, es imprescindible que todas las personas que nos hemos reunido aquí y la sociedad en su conjunto hagamos nuestro ese compromiso, el compromiso de trabajar a favor del euskara.

Euskara, lagunok, bat eta bakarra delako, infinitu ale behar ditu.

GORA EUSKARA!”

ROBER GUTIERREZ
Ziurtagirien Elkarteko Zuzendaria / Director de Ziurtagirien Elkarte

Zorionak, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duzuenoi! eta **eskerrik asko** Barañaingo Udalari eta euskara zerbitzuari bere etxean hain eskuzabal hartzeagatik. Eta IKArI urte hauetako elkarlan emankorragatik.

Euskara baliatu beharreko aldagaia da. Euskarak balioa eransten dio lurralde honetako arlo sozioekonomikoari eta gutako bakoitzak erantzunkizunez jokatu behar du, bere ardurei muzin egin gabe. Gu guztion **rol aktiboa** funtsezkoa da, **aldaketak eragiten laguntzeko**.

Norbanakoak aktibatzeaz ari gara azken bolada honetan, baina **beste aktoreak ere subjektu aktibo** izan behar dira ezinbestean, eta horiek ere aktibatu beharra dago: sektore guztietako enpresak eta **era guztietako entitateak, sindikatuak, euskararen sustapenean ari garen erakundeak... bai eta administrazioa ere. Denon inplikazioa** behar da euskararen erabilera areagotzeko, bere presentzia alor sozioekonomikoko espazioetan handitzeko, eta **ardurak ere partekatu** behar dira.

Bistan da denon inplikazioari eta ekarpenari esker Bai Euskarari Elkarteak ere pixkanaka hazi dela, eta **jatorrizko proiektutik harago** joatea lortu dugula. Gaur egun, Bai Euskarari Elkarteak **ziurtagiri bat baino askoz gehiago da**. Gure komunitatea sendotzeko ari gara lanean, baliabideak etengabe sortzen eta eguneratzen saiatzen gara... Eta ez hori bakarrik; gero eta eragin handiagoa hartzen ari diren beste zenbait egitasmo ere ari gara elikatzen: Enpresarean, Lanabes eta Lansarean lan-ataria, esate baterako. Hori guztia Bai Euskarari Ziurtagiria duten Barañaingo entitate¹ guztien esku jartzen dugu, bai eta Udalaren eskura ere.

Gaur pozik eta oso eskertuta gaude, lorpenak ikusten ditugulako eta aurrera jarraitzeko gogotsu gaudelako. Baina batez ere, pozarren gaude Bai Euskarari Ziurtagiria duten Barañaingo eta Euskal Herriko osoko enpresa, saltoki eta era guztietako entitateak egiten ari diren lanagatik, haien konpromisoagatik, haien ereduagatik, haien eraginagatik eta bide-erakusle izateagatik.

Mila esker guztioi!